

Atarrabi et Mikelats


Eugène Green: “Mito honek sakratuaren eta naturaren arteko harremana irudikatzen du”

IRENE ELORZA

Eugène Green poeta, idazle eta zinemagilea (*La Sapienza, Le Fils de Joseph, En attendant les barbares*) euskal kulturaren murgildu da berriro Atarrabi eta Mikelatsen kondaira film luze batean jasotzeko. Thierry Biscary musikariaren laguntza izan du musikarako eta paper nagusietako bat ere gode dio: Deabruarena. Mari jainkosak Deabruaren esku utziko ditu bi semeak –biak aita hilkorrekoak– hark hez ditzan. Adin-nagusitasunera iristen direnean, batek, Mikelatsek, maisuarekin geratzea erabakiko du; besteak, Atarrabik, ihes egingo du.

Zergatik aukeratu duzu Atarrabi eta Mikelatsen euskal mitoa zure luzemetrai berrirako?

Mitoekiko oso sentibera naiz, unibertsaletik zerbait badutela sinesten dudalako. Mitoetan zentzu ezberdinak aurkitu eta egokitu ditzakegu, Euripides eta Sofoklesen tragedietan gertatzen den bezala: Orestesen mito bera da baina kontakizuna, ezberdi-



ULF ANDERSEN

na. Ongiaren eta gaizkiaren arteko aurkakotasuna irudikatzen du Atarrabi eta Mikelatsen mitoak, sakratuaren eta naturaren arteko harremana. Mari jainkosak natura irudikatzen du, berez ez dena ez ona ez txarra. Gizakiak dira zentzu bat edo bestea

ematen diotenak, hura pentsatu eta hitza erabiltzen dutenean.

Filmak antzerki-forma eta erritmo lasaia ditu eta horrek halako solemnitaterik ematen dio, baina, aldi berean, ikuspegi mo-

derno eta begirunegabekoa du. Kontrastea gustatzen al zaizu?

Niretzat, denboraz kanpo gertatzen den istorio bat da. Harremana dauka denbora guztiaren, baita garaikidearekin ere. Horregatik jokatu dut Donibane Lohitzune eta Zibururen irudi aurreturistikoaekin. Nik instintiboki nahasten ditut gauza arraro samarrak gauza larriekin.

Euskaraz egiten duzun bigarren filma da hau. Euskal mitologiaren pasarte bat aukeratu, ezin bestela?

2016an *Faire la parole* (*Hitza egin*) euskarari buruzko dokumentala idatzi nuen eta filmaketa horretan Iparraldeko hiru gazteri eta Hegoaldeko bati eman nien hitza. Euskaraz eskolatuak izan diren eta hizkuntza ondo ezagutzen duten gazteak ziren, baina konturatu nintzen ez zutela euskal mitologia ezagutzen. Atarrabi eta Mikelatsen istorioa kontatu nien eta haien erreakzioa oso interesgarria izan zen niretzat. Horrek eman zidan filmaren gidoia egiteko eta mi-

toei erreparatzeko ideia. Eta euskaraz egiteari dagokionez, niretzat gauza batek bestera eramaten zuen.

Eszenografia eta dekoratuak oso zainduta daude filmean. Gidoia edo aktore-lana bezain garrantzitsuak al dira zuretzat?

Zinemaren funtsa dira biak, banaezinak dira niretzat. Gidoi bat idazten dudanean –eta zuzendari askok ez dute horrela egiten–, irudiak ikusten ditut, deskribatu egiten ditut, eta muntaketa buruan daukat. Dekoratzailearekin eta jostunarekin esku esku lan egiten dut materialak eta koloreak aukeratzeko, esaterako; dena baita filmaren parte eta dena delako garrantzitsua.

Gaurestreinatuko duzue filma, nola sentiarazten zaitu horrek?

Oso pozik nago filma konpartitzeagatik. Gainera, aktore eta teknikariak han izango dira. Filma ematen den lehendabiziko aldi publikoa euskalduna izatea oso garrantzitsua da niretzat. Zentzu berezia du.

Talento

Erdibitutako artistaren umorezko portreta



MONTSE CASTILLO

I.E.

La noche nos lleva Zinemaldian aurkeztu eta bi urtera, David González Rudiez zuzendari bilbotarra Zinemira Sailera itzuli da *Talento* filmarekin. Bere laugarren lan honetan gerrilla-zinemako zuzendari baten gorabeherak kontatzen ditu. Jorge (David Huertas) zinema zuzendari gaztea asmo handiko egile-film bat amaitzear dago; aktore bakarrarekin, diru gutxirekin baina talentu handiarekin ari da bere ustez zinema-abangoardiaren panorama astinduko duen lana sortzen. Bat batean, bizitza hankaz gora jarri-

ko dion proiektu zahar bat berpiztuko zaio eta film erabat komertziala sortzeko atakan jarriko du ekoizle batek.

David Gonzálezek adierazi duenez, “komedia bat da filma, aurreko lana baino xamurragoa dena; istoriotik bertatik sortzen da komedia, umorea indarrez sartu gabe”. Sortzaile eta artisten pedanteriaz eta norbere buruaz barre egitea du helburu zuzendariak. “Nere buruaz barre egin eta protagonista muturrera eraman dut; egilearen autoflagelazio-puntu hori irudikatu nahi nuen, barregarria eta osasuntsua iruditzen zaidalako”, gaineratu du.

Gonzálezek 40 urte bete zituztenean bere gaur egungo egoeraren laburpen moduko bat egitea otu zitzaion: “Batetik, orain zein puntutan nagoen erakutsi nahi nuen, eta bestetik, bat-batean zerbait komertziala egiteko aukera izango banu nola

moldatuko nintzatekeen hausnartu nahi nuen, umore klabea”. Horretarako, filmeko protagonista prekarioak erabiltzen dituen baliabide berberekin egin du lan zuzendariak. Aktore nagusiak, berriz, zuzendariaren jarri zuen arreta bere pertsonaia osatzeko: “Berarekin lan egitetik abiatu nintzen, bere keinuak ikustetik”, esan du David Huertasek, “eta enpatia eta sinergiak funtzionatu dutela uste dut: hortik ateratzen da Jorge”.

Hirukote baten maitasun istorioa planteatzen du Gonzálezek, Jorge zinemagilea, Marta bikotekidea (Marta Reig) eta Fermin (Jesús Soria) aktore leiala osatzen duten triangelua, hain zuzen. “Ferminek eskatzen dion guztia ematen dio Jorgeri, baina Martak ez du hain erraz amore ematen; azkenean bizitzak beste bide batetik eramaten ditu pertsonaia”, azaldu du zuzendariak.

CON LA MEJOR TECNOLOGÍA LLEVAMOS TUS SUEÑOS A LA GRAN PANTALLA

KELONIK

ANTAVIANA FILMS VFX & POSTPRODUCTION